# ADOSTASUNEZKO ALARDE BATEN ALDE

Behean sinatzen dugunok, Irungo Alkateak deituta, gogoeta-talde bat osatu dugu San Martzialeko Alardean desfilatu nahi duen emakume talde baten nahiak gure hirian sortu duen arazo larriari irtenbideak proposatzeko asmoz. Alkateak gu hautatzeko hartu duen irizpidea zera da: guretako denok jaien hasierako agurra noiz edo noiz egin izan dugula.

Erronkari eutsi eta luze deliberatu ondoren, honako gogoetak plazaratu nahi ditugu:

1) Alardea irundarron nortasun ezaugarrien artean funtsezko elementua da eta berak sortzen duen zirrara hitzez adieraztea oso zaila da. Beraz, hiritarren arteko batasunerako behar luke izan eta ez, tamalez gaur egun gertatzen den bezala, tirabira eta istiluetarako: Irunek gaur egun kanpoan duen irudia, irundarren arteko bizikidetza bezala, orain bi urtekoa baino askoz kaskarragoa da. Eztabaida askatasunez bideratzea, alegia, denok gure irundartasuna erakustea ezinbestekoa da.

2) Alardea despolitizatzea helburu bat izan da bere historia luzean zehar. Halere, gertatuak gertatuta, udalean ordezkaritza duten alderdi ezberdinen ekimenak ez dio irundarrak gaur banatzen dituen arazo honi irtenbiderik eman.

Horiek horrela, zera nahi genuke: indar politikoek gure arazo honetan ez zuzenki ez eta zeharka ere eskurik hartzea. Zinegotziak herriaren nahia ordezkatzeko demokratikoki hautatuak izan badira ere, salbuespen kasu honetan behintzat, hautesleek talde politikoek arazotik kanpo egon daitezela nahiago dutela ematen du.

3) Gogoeta-talde honek elkarren aurkako iritzia duten taldeen ordezkariekin harremanak hasiak ditu arazoari adostasunezko irtenbide bat eman eta gaur egun bizi dugun tentsio egoera gainditzeko duten gogoa ezagutzeko asmoz.

4) Alkateak deitu izanak arazoa konpontzeko legitimazio morala eman baliezaguke ere, hau herriaren babesa edukita ikaragarri indartuko litzateke. Beraz, ahalik eta irundar gehienek agiri honetako ideiak ontzat hartzea eskatzen dugu, horretarako beraien sinadura lehenbailehen bertan jarriz. Azken finean, adostasunezko Alardea eskatzen dugu.

Ricardo Arregui Calvo
Carlos Blanco Aguinaga
Federico Garayalde Emparan
Leontxo Garcia Olasagasti
Ana Izura Eguiguren
Gaspar Montes Iturrioz
Ricardo Requejo Retegui

OHARRA: Manifestu hau agiriari atxikitzeko interesa duten hiritar guztien eskura egongo da Hiritarra Atenditzeko Zerbitzuaren (H.A.Z.) bulegoetan (Juan de la Cruz Plaza), eta udaletxean (San Juan Plaza), martxoaren zehar.

# POR UN ALARDE DE CONSENSO

Los abajo firmantes hemos sido convocados por el Alcalde de Irún para formar un grupo de reflexión que recomiende posibles soluciones al grave problema suscitado en nuestra ciudad con respecto al deseo de un grupo de mujeres de desfilar en el Alarde de San Marcial. El criterio seguido por el Alcalde para elegirnos fue que todos nosotros hemos sido alguna vez los autores del saludo inicial de las fiestas.

Tras aceptar el reto y deliberar en profundidad, hacemos públicas las siguientes reflexiones:

1) El Alarde es un elemento sustancial de las señas de identidad de los iruneses y suscita un sentimiento de emoción tan fuerte que resulta muy difícil expresarlo con palabras. En consecuencia, debe ser un factor de unión entre los ciudadanos, y nunca de tensión o enfrentamiento, como desgraciadamente ocurre en la actualidad: la imagen exterior de Irún es hoy mucho peor que hace dos años, así como la convivencia entre los iruneses. Es imprescindible que el debate se desarrolle con libertad. Es decir, que todos hagamos un ejercicio de generoso irundarrismo.

2) Despolitizar el Alarde ha sido un empeño constante en su larga historia. Sin embargo, dados los hechos acontecidos, la actuación de los diferentes partidos políticos con representación municipal no ha logrado una solución a este conflicto que divide hoy a los iruneses.

Por lo tanto, queremos que todas las fuerzas políticas se abstengan de intervenir directa o indirectamente en la resolución del problema que nos atañe. Si bien los ediles han sido elegidos democráticamente para representar la voluntad popular, todo indica que, como caso excepcional, sus propios electores consideran conveniente que los partidos políticos se mantengan al margen de este asunto.

3) Este grupo de reflexión ha iniciado contactos con representantes de las posturas enfrentadas para pulsar su disposición a encontrar una salida de consenso que supere la tensión actualmente existente.

4) Aunque la llamada del Alcalde pudiera suponer el reconocimiento de una cierta legitimación moral para contribuir a solucionar este problema, ésta sería mucho mayor si contásemos con un amplio respaldo popular. Por lo tanto, solicitamos que el mayor número posible de iruneses exprese su apoyo a las ideas de este manifiesto plasmando su firma en él con la rapidez que el asunto requiere. En definitiva, pedimos un Alarde de consenso.

Ricardo Arregui Calvo
Carlos Blanco Aguinaga
Federico Garayalde Emparan
Leontxo García Olasagasti
Ana Izura Eguiguren
Gaspar Montes Iturrioz
Ricardo Requejo Retegui

NOTA: Este manifiesto estará a disposición de todos aquellos ciudadanos interesados en adherirse al mismo en las oficinas del Servicio de Atención al Ciudadano, S.A.C., (Plaza Juan de la Cruz), y en el edificio consistorial, (Plaza San Juan), durante el mes de marzo.